

Gaur duela 45 urte Guardia Zibilak Gladys del Estal erail zuen

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 03/06/2024

Energia nuklearraren eta Bardeako Tiro Poligonoaren kontrako mobilizazio batean hil zuten, buruan tiro bat jota.

45 urte pasatu dira guardia zibil batek Gladys hil zuenetik, buruan tiro bat jota. 1979ko ekainaren 3an gertatu zen hura, Tuteran, energia nuklearraren eta Bardeako Tiro Poligonoaren kontrako mobilizazio baten jazarpen polizialaren baitan. Lekukoek diotenez, José Martínez Salasek «tía buena» esan zion Gladysi, Gladysen «hijo de puta» ihardetsi eta orduan Martínez Salasek bere armaren kulatarekin jo zuen; Gladys lurrera erori zen, eta, altxatzen ari zela, Martínez Salasek tiro egin zion buruan. Tiroa garondotik sartu eta sudurretik atera zitzaion. Gladys ospitalera eraman zuten, larri zaurituta, eta laster hil zen.

Larunbatean, urteoro bezala, omenaldia egin zioten Donostian. Honetan “zorigaiztoko egun hartan Tuterara eraman zuten arrazoiek bizi-zizirik diraute” salatu zuten, azken batean, Gladys hil zuten “eguzkia, ura eta askatasuna defendatzeagatik”, eta hori beti aktualitatezko kontua izango da gehitu zuten.

(Irudia:Eguzki)

<https://eh.lahaine.org/gaur-duela-45-urte-guardia>